

Gardentasunaren aldeko Euskadiko udalen konpromisoa

Lankidetzarako eta esperientziak elkar trukatzeko udal sarea



Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udal Sarea lehenengo urritik bere jardueren bigarren fase batean dago murgilduta.

Udalean gardentasunari buruz aplikatu beharreko gakoak landu ondoren, hurrengo etapa honetan, Sareak garapen handiagoa eskatzen duten arloetan etengabeko hobekuntzan aurrera jotzea izango du ardatz. Arlo horiek, besteak beste, hurrengo hauek dira: kudeaketa eta barne-prozedurak (zerbitzuen ebaluazioa, efizientziari buruzko adierazleak, etab.), Open data, Informazio ekonomiko-finantzarioa, edo Gardentasunari buruzko herritarrekiko elkarrizketa.

Legearen betekizunari eta herritarren eskakizunari erantzuteaz gain, Eudelek badaki gardentasunak udal administrazioak modernizatzeko aukera ere dakarrela.

Horregatik, helburua Sare honen barruko elkarlanean Euskadiko gero eta udal gehiago inplikatzeara da.

Aurrerapen-maila handieneko udalen eta oraindik lanari ekin ez diotenen arteko esperientzien eta ezagueren trukeak, udal mailako Gardentasunaren alorreko Euskal

Udalen ibilbide bateratua garatzen lagunduko du.

Lehenengo jarduerak:

- Gardentasunaren alorrean **sentsibilizatze**ko jarduerak politikari-talde eta udal teknikarientzat;
- **Prestakuntza eta aholkularitzako** saioak eta;
- Udalen arteko **esperientzien trukea**.

Gardentasunaren Sarean parte hartzeko:

Sareak, oraindik bat egin ez duten udalak Gardentasunaren aldeko konpromisoarekin bat egitera gonbidatzen ditu, beste udal batzuekin lankidetzan, mailakako aurrerapena nahiz etengabeko hobekuntza lortzeko.

KONTAKTUA: udaltransparencia@eudel.net

Informazio gehiago: www.eudel.net/transparencia/

Gardentasuna zerotik abiatuta lantzeko

Sareak 2013an egindako lanaren balantzea

Edozein udal hasi daiteke Gardentasuna lantzen, tamaina, baliabideak eta aurretiazko esperientzia edozein delarik ere.

Gardentasun Sareak "udal gardena" abian ipintzeko asmoz, bi gidaliburu prestatu ditu. Bertan agertzen dira Gardentasuna zerotik abiatuta lantzeko hasi nahi duen edozein udalek egin beharreko oinarritzko urratsak.

1. Aurretiazko informazioa eta orientabidea:

“70 Praktika Onak udal gardena lortzeko”:

Euskadiko eta Estatuko toki erakundeetan Gardentasunaren alorrean garatutako adibide arrakastatsuak biltzen ditu.



Gardentasunaren arloak:

- Hautetsiak eta konfiantzazko arduradunak
- Udal langileria eta antolakuntza
- Herritarrekiko harremanak
- Udal plangintza
- Informazio ekonomiko-finantzarioa
- Kudeaketaren efizientzia eta efikazia
- Kontratazioa hirigintza eta obra publikoen alorrean
- Open Data
- Udal araudi eta hitzarmenak
- Gardentasunarekiko konpromiso, zabalkunde eta komunikazioa

2. Aholkularitza eta jarduerak abian jartzea:

"Gardentasuneranzko Bide Orria: Estrategia eta tresnak udal gardenagoak eraikitzeko":

Laguntzarako materialak barne hartzen ditu, besteak beste, herritarrei galdetegia pasatzeko eredua, norbere burua ebaluatzeko eredua, leheneratzeko adierazleak eta erraz ulertzeko informazio ekonomiko-finantzaria aurkezteko gomendioak.



Kopuruak

Nazioarteko Gardentasunari buruzko Txostenaren arabera, Euskadiko bost udal gardentasun handieneko munduko 50ren artean daude; eta haietariko hiru lehenengo hamar postuen zerrendan agertzen dira.

Eudelek **Udal Berrikuntzari buruzko Diagnostikoa** igorri zien Euskadiko udal guztiei (2012ko abenduan). Horrek erakusten duenez, asko dago hobetzeko udal gardentasunaren alorrean, batik bat, udalen antolakuntza, kudeaketa eta barneko prozeduretan.

Onurak

Gardentasuna udalaren antolakuntzan eta barneko kudeaketan sartzeak kontuak emateko prozedura, udal informaziorako irisgarritasuna eta herritarren kontsultei erantzuteko bizkortasuna errazten ditu. Hurbilagoa eta irekiagoa den gobernatzeko era berria islatzen du.

Gardentasuna, beharrezkoa izateaz gain, udalek kudeaketa hobetu, herritarren konfiantza zein elkarlana handitu eta udalaren hazkundea sustatzeko aukera sortzen du.



Aukera eta beharizan horretaz jabetuta, Sareak Euskadiko udalen gobernu on eta kudeaketaren ardatz jartzeko asmoa dauka.

Zertan datza Gardentasunaren aldeko Sarea?

Sarea 2013an sortu zen, udalei hurrengo zerbitzuak eskainiko dituen espazioa sortzeko asmoz: ezagutzak, praktika onak eta estrategiak elkarri trukatea; metodologiak, tresnak eta materialak ematea; eta Gardentasuna udal gobernu eta administrazioetan sustatzea.

Lan esparruak

- **Praktika onak**
- **Diagnostikoa eta estrategia**
- **Informazio ekonomiko-finantzario gardena** (adibideak, adierazleak eta gomendioak)

Udalei, Gardentasunari ekin edo bide horretan aurrera jotzeko jarraibideak eskaintzen dizkie.

Sare honetako lanaren aurrerapen guztiak udal guztiei zabaltzen zaie, gardentasunaren alorreko Euskadiko Udalen estrategia bateratua garatzea sustatzen duten informazioa eta ezaguerak partekatzeko asmoz.

Egitura

Gaur egun, hiru lurralde historikoe-tako eta biztanle-kopuru desberdinetako 24 udalek eta mankomunitate batek osatzen dute Sarea.

Horiatariko bakoitzak arduradun politiko eta arduradun tekniko bana dauzka.

Kideak: 24 udal eta Mankomunitate bat

Bizkaia: Abanto-Zierbena, Arrigorriaga, Bilbao, Barakaldo, Basauri, Derio, Eibar, Elorrio, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Güeñes, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Ugao-Miraballes eta Zamudio (*2013ko urrian sartu berria)

Txorierriko Mankomunitatea
Araba: Amurrio, Laguardia eta Vitoria-Gasteiz.

Gipuzkoa: Elgoibar, Hondarribi, Irun.

Gardentasunari buruzko udal esperientzien zenbait adibide

BAKIOko Udala

- Kontratazio prozesu osoaren dokumentazio osoa

BARAKALDOko Udala

- Gardentasun Ataria
- Gobernu Batzordearen akordioak
- Aurrekontuak prestatzerakoan herritarrek partaidetza

BASAURIko Udala

- Auditatutako kontuak
- Aurrekontuen laburpen exekutiboa eta memoria

BERGARAKo Udala

- Udal zerbitzuen kudeaketa memoria


BILBOKo Udala

- Gardentasun Ataria
- “e-udala” Ataria izapide eta zerbitzuentzako
- Esleipen langileen urteko ordainsaria
- Lanpostuen zerrenda osoa
- Gardentasuna Legegintzaldi planaren helburu gisa
- Lizitazioez ohartarazteko izenematea

- Egoera ekonomiko-finantzarioen ratioak eta Udalaren aurrekontu betearazpena
- Urte askotarako proiektuak aurrekontuetan

DONOSTIAko Udala

- Gardentasun Ataria
- Hiri-Behatokiaren datuak, adierazleak eta estatistikak
- Udal zorrari buruzko informazio osoa
- Udal Epaimahai Ekonomiko Administratiboaren aurrean erreklamazio bat egiteari buruzko informazio guztia eta UEEAren aginduen argitalpena
- Herritarrentzeko Bulego birtuala (HAZ)



Edozein udalek, tamaina gorabehera, bere Gardentasuna hobetu dezake.

Udal webgunea udalaren aurrezpen gutuna da, eta herritarren kontsulta ahalbidetzeko eta informazioa zuzenean atzitzeko konpromisoaren erakusgarri da.

ELGOIBARKo Udala

- Legegintzaldi Planaren bertsio laburtua eta osoa

ELORRIOko Udala

- Aurreko ekitaldietako aurrekontuak eta bilakaera alderatua

ERMUAKo Udala

- Gardentasun Ataria
- Konfiantzazko langileen zerrendaketa osoa, ordainsariak eta euren egitekoen baldintzak
- Aurrekontuei aurkeztutako zuzenketei eta alegazioei buruzko informazioa



GALDAKAOko Udala

- Zergak eguneratzeari buruzko iradokizunak egiteko web helbidea: esan@galdakao.net
- Udal araudia bilaketa-sistemarekin
- Aurrekontuak prestatzerakoan herritarrek partaidetza

GEIXOko Udala

- Gardentasun ataria
- 'Getxo Auzoz Auzo' programaren weba herritarren parte-hartzea bultzatzeko eta bere beharrik eta proposamentak bere auzoak hobetzeko asmoz
- Udalaren organigrama eta langile arduraduna eta langile arduraduna
- Gobernu Onaren Kodea
- Hirigintza proiektuen gaineko informazioa, faseaz, abian diren lanaz, hirigintza-hitzarmenez,...
- Egoera ekonomiko-finantzarioaren bilakaera
- Pertsona bakoitzeko gastuen adierazleak
- Aurrekontu osoak
- Legegintzaldi Plana

GÜEÑESEko Udala

- Aurrekontuak aurkeztea grafikoki baliatuz, informazio ekonomiko-finantzarioa ulergarriagoa egiteko.
- Herritarrentzako aldizkariak, postontzia, sare sozialetan agertzea eta oharretarako zerbitzua dauka.
- Udalen Osoko Bilkurak bidez grabatzea eta udalaren web orrialdean argitaratzea

HONDARRIBIko Udala

- "Alkatearekin hitz egiten" Herritarrentzako postontzia

IRUNgo Udala

- Gardentasun Ataria
- Udal aurrekontuen proiektuaren informazio irisgarria eta ulertzeko erraza. Terminoen glosario bat eranstean da
- Plan Estrategikoa
- Udal lanen egoera, aurrekontua, enpresa esleipenduna...

PORTUGALETEko Udala

- Lizitazioen historikoa

SANTURIZIko Udala

- Finkatutako aurrekontuak (diru-sarrerak eta gastuak)

URNIETAko Udala

- Iragarki ohol elektronikoa

GASTEZko Udala

- Gardentasun ataria
- Hautetsien curriculum eta Harremanetarako bere posta elektronikoa
- Emandako diru-laguntzen xehetasunak
- Herritarrentzako postontzia. Herritarren galderak, kexak eta iradokizunak argitaratzea, bai eta horien erantzunak ere
- Udalaren Osoko Bilkuren aktak

ZALLAko Udala

- Alkatearen Bloga
- Inbertsioak eta finantzaketaren jatorria